

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2962

AGINDUA, 2015eko ekainaren 1ekoa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinen bidez onartzen baitira ardurapean seme-alabak dituzten familiak laguntzeko laguntza ekonomikoei buruzko martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuan aurreikusitako laguntzak eskatzeko eskabide normalizatuak.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70.4 artikulua xedatzen duenez, herri-administrazioek eskabide-eredu eta –sistema normalizatuak ezarri beharko dituzte hainbat prozeduraren gaineko ebazpen ugari eragin behar duten prozeduretarako, eta eredu horiek herritarren esku egon beharko dute administrazioen egoitzetan.

Bestalde, ardurapean seme-alabak dituzten familiak laguntzeko laguntza ekonomikoei buruzko martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren 17. artikuluen lehenengo paragrafoaren arabera, familia-politikaren arloan eskumena duen saileko sailburuaren aginduaren bidez onartutako eskabide normalizatuan aurkeztuko dira eskaerak, eta eransten du eskaeren eskabide normalizatuak Zuzenean–Eusko Jaurlaritzako Herritarrentzako Arreta Zerbitzuko bulegoetan emango direla eta helbide elektronikoko honetatik ere deskargatu ahal izango dira zuzenean (<https://euskadi.eus>).

Jarraian, dekretu beraren 17. artikuluen bigarren paragrafoaren arabera, honela aurkeztu ahal izango dira laguntza ekonomikoetarako eskabideak: Eusko Jaurlaritzako Zuzenean–Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan aurrez aurre; Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean, atal guztiak behar bezala beteta, edota, halaber, elektronikoki, 19. artikuluan aurreikusi bezala.

Eta, azkenik, dekretu beraren 17. artikuluen hirugarren paragrafoan zehazten denez, eskabideak atal bat izango dute familia-unitatea osatzen duten aita eta ama baimena eman diezaioten laguntza ekonomikoen organo kudeatzaileari, haien errenta-mailari buruzko informazioa eskuratzeko; bide elektronikoen bidez egingo dute, zerga-administrazioetatik zuzenean, baldin eta zergaz besteko helburuetarako informazioa eskuratzeko euren arteko lankidetzak hitzarmena existitzen bada. Eta, halaber, beste atal bat egongo da familia-unitatea osatzen duten aita eta ama baimena eman diezaioten laguntza ekonomikoen organo kudeatzaileari, nortasun agiriari edo atzerriarren identifikazio-zenbakiari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan dauden datuei hauei buruzko informazioa frogatzeko, ziurtatzeko edo egiaztatze eskumena duen administrazioan, bide elektronikoen bidez.

Azaldutakoagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da onartzea ardurapean seme-alabak dituzten familiak laguntzeko laguntza ekonomikoei buruzko martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuan aurreikusitako laguntzak eskatzeko eskabide normalizatuak.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

2015eko apirilaren 1etik aurrera gertatzen diren egoera diruz lagungarrietan aplikatzekoak izango dira agindu honetan aurreikusitako eskabide normalizatuak, hargatik eragotzi gabe ardurapean seme-alabak dituzten familiak laguntzeko laguntza ekonomikoei buruzko martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren Bigarren Xedapen Iragankorraren bigarren paragrafoan xedatutako.

3. artikulua.– Laguntzak eskatzeko eskabide normalizatuak.

1.– Laguntzak eskatzeko eskabide normalizatuak onartzen dira; honako hauetarako eskatuko dira laguntzok, eta agindu honi erantsi zaizkio:

a) Laguntza ekonomikoak eskatzea jaiotzagatik, adopzioagatik, adoptatu aurretik familian hartzeagatik eta hemezortzi urte baino gutxiago duen pertsona baten gaineko tutoretzagatik; H HASIERAKOA izeneko eskabide normalizatuari dagozkio.

b) Laguntza ekonomikoak eskatzea familia-unitateko seme-alaben mantenuagatik; M MANTENUA izeneko eskabide normalizatuari dagozkio.

2.– «<https://euskadi.eus>» egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri eskabide normalizatuak eta horiek betetzeko jarraibideak. Zehazki:

a) Laguntza ekonomikoak eskatzea jaiotzagatik, adopzioagatik, adoptatu aurretik familian hartzeagatik eta hemezortzi urte baino gutxiagoko pertsona baten gaineko tutoretzagatik; H HASIERAKOA izeneko eskabide normalizatuari dagozkio. Hemen: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-contpfc/es/contenidos/ayuda_subvencion/ayudas_hijos_2014/es_0001/es_002.html

b) Laguntza ekonomikoak eskatzea familia-unitateko seme-alaben mantenuagatik; M MANTENUA izeneko eskabide normalizatuari dagozkio. Hemen: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-contpfc/es/contenidos/ayuda_subvencion/ayudas_hijos_2014/es_0001/es_002.html

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 1a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
ANGEL TARSICIO TOÑA GÜENAGA.



EUSKO JAURLARITZA

**ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA**
*Familia Politikarako eta Komunitate
Garapenerako Zuzendaritza*

GOBIERNO VASCO

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES**
*Dirección de Política Familiar
y Desarrollo Comunitario*



**DIRU-LAGUNTZARAKO ESKABIDEA: SEME-ALABEN JAIOTZA, ADOPZIOA, ADOPZIO
AURREKO FAMILIA-HARRERA EDO TUTORETZA**

AURKEZTEKO EPEA: 3 hilabete, jaiotzatik, adopzioetatik, adopzio aurreko familia-harreratik, edo tutoretzatik

LETRA LARRIAK ERABILI ETA TXUKUN ETA ULERTZEKO MODUAN IDATZIZ

IRAKURRI ARRETAZ ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1.- ESKABIDE MOTA:

- 1 Jaiotza / seme edo alabaren zk. ☐
- 2 Erditze anizkoitza ☐
- 3 Adopzio nazionala ☐
- 4 Nazioarteko adopzioa ☐
- 5 Adopzio aurreko familia-harrera ☐
- 6 Tutoretza ☐

Adopzio, harrera edo tutoretzaren data:

--	--	--	--

--	--

--	--

0.- ADMINISTRAZIOAK BETETZEKO

Esp.:

--

--	--	--	--

--	--

--	--	--	--	--

URTEA L.H. ZENBAKIA

SARRERA-ERREGISTROA:

2.- ESKATZAILEAREN DATUAK

Abizenek eta izenak ZEHAZKI bat etorri beharko dute zure NAN, AIZ edo pasaportean agertzen direnekin.

1. abizena:		2. abizena:											
Izena:		NAN/AIZ/Pasaportea: <table border="1" style="display: inline-table; vertical-align: middle;"> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> </tr> </table>											
Jaiotza: Data: <table border="1" style="display: inline-table; vertical-align: middle;"> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> </tr> </table> <table border="1" style="display: inline-table; vertical-align: middle;"> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> </tr> </table>								Estatua:					
Sexua: gizona ☐ emakumea ☐													
Egoera zibila: ezkongabea ☐ ezkontdua ☐ izatezko bikotea ☐ banandua-dibortziatua ☐ alarguna ☐													
Haurrarekiko harremana: aita ☐ ama ☐ tutorea ☐ hartzailea ☐													
% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna ☐ Genero-indarkeriaren biktima ☐													
GURASOEN ARTEKO HARREMANA:		1.- Elkarrekin bizi den bikotea gara ☐ 2.- Elkarrekin bizi ez den bikotea gara ☐ 3.- Egun ez gara bikotekideak ☐											
Helbidea (jakinarazpena egiteko): Kalea: zk.: Solairua: Hizkia: Udalerria: PK: Herria: Lurralde Historikoa: Mugikorra: Telefonoa: Helbide elektronikoa:													
Erroldatzearen antzinasuna (jarri X dagokion laukitxoan): Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) erroldatuta nago eta egon naiz etenik gabe azken 12 hilabete hauetan. ☐ BAI ☐ EZ													

NON AURKEZTU ETA NORA BIDALI: ZUZENEAN

Ramiro de Maeztu, 10 - 01008 VITORIA-GASTEIZ Gran Vía, 85 - 48011 BILBAO Andia 13, 20004 - DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Eskaera telematikoa aurkezteko aukeraren berri izateko, begiratu hemen: www.euskadi.eus/familia



2015eko uztailaren 3a, ostirala

3.- ESKATZAILEA EZ DEN PERTSONAREN DATUAK (aita/ama, hartzailea, tutorea, edo, halakorik bada, egungo bikotekidea)

Abizenek eta izenak ZEHAZKI bat etorri beharko dute zure NAN, AIZ edo pasaportean agertzen direnekin.

1. abizena:		2. abizena:	
Izena:		NAN/AIZ/Pasaportea:	
Jaiotza: Data:			Estatua:
Sexua:	☐ gizona	☐ emakumea	
% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendetasuna		☐	
Helbidea:	☐ Araba ☐ Bizkaia ☐ Gipuzkoa ☐ Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo		

4.- FAMILIA-UNITATEAN ELKARREKIN BIZI DIREN SEME-ALABEN DATUAK:

ORDENA	JAIOTZE DATA	SEXUA		ABIZENAK ETA IZENA	% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendetasuna	Zaintza	Tutoretza
		G	E				
1.							
2.							
3.							
4.							
5.							
6.							
7.							
8.							
9.							
10.							

5.- JAKINARAZPENARI BURUZKO DATUAK:

Komunikatzeko hizkuntza:	☐ Euskara	☐ Gaztelania
Jakinarazpen-bidea:	☐ Ohiko posta	☐ Telematikoa
Jakinarazpen-bide hau aukeratzen baduzu, nahitaezkoa da NAN elektronikoa, ONA txartela, edo onartuta dagoen beste txartelen bat edukitzea. Zure espedientea erabakita dagoenean e-mail edo SMS bat jasoko duzu (aukeratu duzun jakinarazpen-oharra egiteko bidearen arabera), eta hau jakinaraziko zaizu: www.euskadi.eus/familia webgunera jo behar duzula, identifikazio-txartela txertatu eta "Nire gestioak" atalean sartu, eta hor ikusiko ahal izango duzu ebazpena osorik. Jakinarazpen-oharra egiteko bidea: ☐ SMSa ☐ E-maila		

2015eko uztailaren 3a, ostirala

ESKATZAILEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Izen-abizenak,

NAN/AIZ/pasaporte zk.:

Honako hau ADIERAZTEN DUT NEURE ERANTZUKIZUNPEAN:

Lehenengoa

Ez nago sartuta ☐ sartuta nago ☐ diru-laguntza bat itzultzeko edo hargatik zehapena ezartzeko prozedura batean, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta beraren erakunde autonomoek ematen dituzten laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozedura batean.

Bigarrena

Ez nago zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta, eta ez nago, halaber, hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak esanbidez aipatuta, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoa) Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki.

Hirugarrena

Irakurri ditut inprimaki hau betetzeko jarraibideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko eranskinak, eta egiazkoak dira eta ontzat ematen ditut eskabidean bilduta dauden datuak eta eskabideari erantsita doan dokumentazioa.

Laugarrena

Laguntza hauen onuradun izateko indarreko legerian ezarritako baldintzak betetzen ditut eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa dut; horretaz gain, laguntza baliatzeko denboraldi osoan baldintzak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dut.

ESKATZEN DUT

Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusten den laguntza eman diezadatela.

....., 20..... (e)ko ren(a)

ESKATZAILEAREN SINADURA

2015eko uztailaren 3a, ostirala

ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Bete datuak ondoren emango diren argibideak kontuan hartuta.

0 atala Administrazioak beteko du.

Zenbakizko datuak eskuinera doituko dira, hutsik geratzen diren laukitxoak ezkerreko aldekoak izango dira, baten bat hutsik geratzen bada.

NANaren laukitxoa betetzeko adibidea:

		7	8	2	5	6	9	1	Z
--	--	---	---	---	---	---	---	---	---

1.- ESKABIDE-MOTA: Borobil batez inguratu zure erantzunaren laukitxoko zenbakia.

- Jaiotzaren kasuan, lehenengo semea edo alaba bada 1 jarri atzeko laukitxoan; bestela, familia-unitateko seme-alaben artean dagokion hurrenkera-zenbakia jarri.
- Adopzio, harrera edo tutoretzaren kasuan, bete ezazu zein datatan izan zen. Erabili lehenengo lau laukitxoak urtea jartzeko, hurrengo biak hilabeta jartzeko (urtarrila= 01 eta abendua= 12), eta azken biak egunerako.

2.- ESKATZAILEAREN DATUAK: Aita, ama, hartzaila edo tutorea izan daiteke, betiere seme-alabekin bizi bada eta urtebete badarama Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta, edo, egun EAEen erroldatuta badago eta azken hamar urtean bost urtez bertan etengabe bizi eta erroldatuta egon dela egiaztatzen badu.

- NAN/AIZ/pasaportea: Espainiako herritartasuna baduzu, NANaren zenbakia idatzi; izan ezean, zure pasaportearen zenbakia edo atzeritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) jarri beharko duzu.
- Jaiotze-datari dagokionez, urtea jarri behar duzu lehenengo lau laukitxoetan, hilabetea hurrengo bietan eta, azkenik, eguna. Adibidea: 1980ko apirilaren 2an jaio bazara, 1980 04 02 jarri behar duzu.
- Erakunde eskumendunak onartutako % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna izanez gero, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu beharko da.
- Genero-indarkeriaren biktima izanez gero, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu beharko da.

3.- ESKATZAILEA EZ DEN PERTSONAREN DATUAK (aita/ama, hartzaila, tutorea, edo, halakorik bada, egungo bikotekidea): 2. ataleko arau eta irizpide berberak hartuko dira kontuan.

4.- FAMILIA-UNITATEAN ELKARREKIN BIZI DIREN SEME-ALABEN DATUAK: Laguntza honen hartzailak seme-alabak dira: eskaera aurkeztu aurretiko hiru hilabeteetan jaiotakoak, adoptatuak, adoptatu aurretik hartutakoak, eta tutelatutakoak. Ezinbestekoa da seme-alabaren jaiotze-data, abizenak eta izena adieraztea, letra argia erabiliz

- Sexuari dagokion zutabea, laguntza sorrazi duena semea bada, G letraren azpian dagoen laukitxoan **X** bat idatzi; neska bada, E letraren azpian dagoen laukitxoan **X** bat idatzi.
- Erakunde eskumendunak onartutako % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna izanez gero, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu beharko da.
- Epai judizial baten ondorioz zuk edo zure oraingo bikotekideak badaukazue aipatutako seme edo alabaren zaintza edo tutoretza, **X** batez adierazi Zaintza edo Tutoretza izenburuko zutabea, eta agiri bidez egiaztatu beharko da.

5.- JAKINARAZPENARI BURUZKO DATUAK: oharrak eta jakinarazpenak jasotzeko eskatzaileak hautatutako modua.

ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

a.- Eskatzailearen eta gaur eguneko ezkontide edo bikotekidearen NAN, AIZ edo pasaportearen kopia, salbu eta organo kudeatzaileari baimena eman bazaio NAN edo AIZa begiratzeko, egiaztatze edo frogatzeko. Europar Batasuneko beste estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte hartu duten estatuetako bateko nazionalitatea duten pertsonen pasaportea edo beren herrialdeko nortasun-agiri baliokidea aurkeztuko dute, titularraren nazionalitatea adierazten den heinean, eta gainerako herrialdeetako nazionalitatea duten pertsonen, berri, Atzeritarra Identifikatzeko Zenbakia (AIZ) edo pasaportea aurkeztu beharko dute edo, hala dagokionean, bizileku iraunkorrerako baimena.

b.- Senar-emazteen familia-liburuaren kopia edo, izatezko bikoteen kasuan, erregistratuta dauden Izatezko Bikoteen Erregistroaren ziurtagiria edo hura egiaztatzen duen antzeko dokumentua, salbu organo kudeatzaileari baimena eman bazaio egiaztatze, baieztatze edo ziurtatzeko inskripzioa izatezko bikote gisa Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan.

c.- Laguntza jaso dezakeen seme edo alaba barne hartzen dituen familia-liburuaren kopia. Familia-unitatea osatzen duten seme-alaba guztiak familia-liburuan jasota ez badaude, haien jaiotza egiaztatzen duen jaiotza-agiria edo antzeko agiria aurkeztu beharko da, agintaritza eskudunak egina, familia-liburuan agertzen ez diren seme edo alaba bakoitzeko.

d.- Eskatzailearen erroldatze-ziurtagiri eguneratua, etxean bizi diren lagun guztien zerrenda eta eskatzailea udalerrian erroldatu zen eguna barne. Ziurtagiri hori, onartua izateko, gehienez ere laguntza-eskabidea aurkeztu baino hilabete lehenago egina izango da.

Eskabidea aurkeztu aurreko urtean eskatzailea ez bada bizi izan edo ez bada jarraitutasunez erroldatuta egon Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerrian, egungo erroldatze-ziurtagiriaz gain (ziurtagiri horretan eskatzailearekin batera bizi diren lagun guztiak bilduko dira), azken hamar urte hauetan bost urtez jarraian EAEko udalerriren batean erroldatuta egon dela egiaztatzen duen erroldatze-ziurtagiria aurkeztu beharko du.

e.- Laguntza kobratu nahi den aurrezki-libretaren edo banku-kontuaren titulartasun-datuen kopia. Nahitaez, eskatzaileak aurrezki-libretaren edo banku-kontuaren titular izan beharko du. Eskabide hau aurkeztu ondoren, laguntzak kobratzeko banku-kontuaren zenbakia aldatu duzula jakinarazten baduzu, laguntzak kudeatzen dituen organoak egingo du aldaketa eta, hortaz, aldaketa hori ez da berehalakoa izango.

f.- PFEZ errenta-aitorpenaren kopia, jaiotzaren, adopzioaren, adopzio aurreko familia-harreraren, edo tutoretzaren dataren aurreko bi urteei buruzkoa edo, horrelakorik ez badago, PFEZari egozteko moduko diru-sarreraren ziurtagiria, dagokion administrazioak emandakoa, kasu hauetakoren batean badago soilik:

- Aitorpen hori EAetik kanpo aurkeztu bazuen edo aurkeztu beharko bazukeen.
- Azken hiru urteetan zure identifikazio-dokumentuan aldaketaren bat egin baduzu (AIZa izatetik NANA izatera pasatu bazara, izenaren grafia aldatu baduzu, abizenen hurrenkera aldatu baduzu, eta abar)
- Pasaportearekin identifikatzen bazara
- Ez baduzu baimenik ematen euskal autonomia-erkidegoko foru-ogasunei datu ekonomikoak eskatzeko.

g.- Adopzioaren, harreraren edo tutoretzaren kasuan, hura gauzatzeko ebazpen judizialaren edo antzeko dokumentuaren kopia, eta, hala badagokio, horren jakinarazpen-data egiaztatzen duen ziurtagiria, adopzioa, adopzioaren aurreko familia-harrera edo tutoretza gauzatzeko eskumena duen agintaritzak emana, betiere.

h.- Eskatzailearen ezkontza deuseztatu bada, edo epai judizialen bitartez eskatzailea banandu edo dibortziatu bada, laguntza eragin duten seme-alaben zaintza eta babespea esleitzen duen ebazpen judizialaren kopia. Orobat, ebazpen judizialaren arabera seme-alaba horien zaintza eta babespea konpartitua bada, laguntzaren eskatzailea erabakitze lortutako akordio sinatua aurkeztuko da.

i.- Familia-unitateko kideren bati % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna —edo mendetasuna— onartu bazaio, organo eskudunak indarreko desgaitasun-maila aitortzeko emandako ziurtagiriaren kopia.

j.- Emakumeen aurkako indarkeria-egoera egiaztatze, bide hauetakoren bat erabiliko da:

- Indarkeriaren biktima babesteko agindua indarrean egotea eskabidea egiten den egunean.
- Genero-indarkeriatzat hartzen diren ekintzengatiko zigor-epaia, non biktimaren aldeko babes-neurriak hartzea erabaki baita; babes-neurriak indarrean egon beharko dute laguntza-eskaria egiten den egunean.
- Baldin eta babes-agindurik edo zigortzeko epairik ez badago, Fiskaltzaren txostenak balioko du egoera hori egiaztatze, babes-agindua ematen den arte; txosten horretan adieraziko da zantzuak daudela eskatzailea genero-indarkeriaren biktima izateko.

Oharra: atzerrian emandako dokumentazioa

Ematen diren atzerriko dokumentu guztiek euskarara edo gaztelaniara itzulita egon beharko dute, interprete ofizial batek itzulita ere. Gainera, atzerriko dokumentu publikoak dagokionaren arabera legeztatu behar dira, Hagako Oharraren edo Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez.

2015eko uztailaren 3a, ostirala

EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO FORU-OGASUNEI DATU EKONOMIKOAK ESKATZEKO BAIMENA**DATU EKONOMIKOAK JAIOTZAREN, ADOPZIOAREN EDO ADOPZIO AURREKO FAMILIA-HARRERAREN AURREKO BI URTEEI DAGOZKIE****ATAL HAU DERRIGOR BETE BEHARKO DA ESKABIDE GUZTIETAN,** kasu hauetan izan ezik:

- 1) Jaiotzaren, adopzioaren edo adopzio aurreko familia harreraren aurreko bi urteei dagokien zergaldian PFEZaren aitortpena EAetik kanpo egin bazenuen edo egitea tokatzen bazitzaizun
- 2) Azken hiru urteetan zure identifikazio-dokumentuan aldaketaren bat egin baduzu (AIZa izatetik NANA izatera pasatu bazara, izenaren grafia aldatu baduzu, abizenen hurrekera aldatu baduzu, eta abar)
- 3) Pasaportearekin identifikatzen bazara, edo zure herrialdeko nortasun-agiri baliokidearekin Europar Batasuneko beste estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte hartu duten estatu bateko nazionalitatea duen pertsona bazara.

Kasu horietan, eskatzaileak derrigor aurkeztu beharko du PFEZ errenta-aitortpenaren fotokopia, jaiotzaren, adopzioaren, adopzio aurreko familia-harreraren, edo tutoretzaren datuen aurreko bi urteei buruzkoa edo, horren ezean, PFEZeant kontuan hartutako diru-sarreraren ziurtagiria, dagokion administrazioak emana.

ESKATZAILEAREN DATUAK:

Abizenak: 1. 2.
Izena: NAN/AIZ:

EZKONTIDEAREN/BIKOTEKIDEAREN DATUAK:

Abizenak: 1. 2.
Izena: NAN/AIZ:

A.- BAIMENA EMATEN DUZU FORU-OGASUNARI DATUAK ESKATZEKO?	ESKATZAILEA	EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA
Ez dut baimenik ematen, eta gutxienerako laguntzari heltzen diot	☐	☐
Ez dut baimenik ematen, eta jaiotzaren, adopzioaren edo adopzio aurreko familia harreraren aurreko bi urteei dagokien zergaldian PFEZaren aitortpena aurkezten dut.	☐	☐
Ematen dut baimena datuak eskatzeko	☐	☐
B.- AURKEZTU AL ZENUEN ERRENTA-AITORTPENA?		
Ez nuen errenta-aitortpena aurkeztu	☐	☐
Aurkeztu nuen errenta-aitortpena	☐	☐
C.- ZER MOTATAKO ERRENTA-AITORTPENA AURKEZTU ZENUEN?		
Banakako aitortpena	☐	☐
Baterako aitortpena, egungo ezkontide edo bikotekidearekin	☐	☐
Baterako aitortpena, aurreko ezkontide edo bikotekidearekin	☐	☐
Banakako eta baterako aitortpena	☐	☐
D.- ZER LURRALDE HISTORIKOTAN AURKEZTU ZENUEN EDO AURKEZTU BEHAR ZENUKEEN?		
Arabian	☐	☐
Bizkaian	☐	☐
Gipuzkoan	☐	☐

....., 20 (e)ko ren(a)

IZPTA: ESKATZAILEA

IZPTA: EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA

DIRU-SARRERARIK EGIAZTATZEN EZ BADA, GUTXIENEROKO LAGUNTZA jasoko da

2015eko uztailaren 3a, ostirala

ESKATZAILEAREN ETA HAREN EZKONTIDE EDO BIKOTEKIDEAREN BAIMENA

ESKATZAILEA

Izena eta bi abizenak:

NAN/AIZ:

EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA

Izena eta bi abizenak:

NAN/AIZ:

BAIMENA EMATEN DIOT LAGUNTZA KUDEATZEN DUEN ORGANOARI

	ESKATZAILEA	EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA
Administrazio eskudunaren bitarteko elektronikoen bidez <u>nire nortasun-agiri nazionala edo atzerriarraren identifikazio-zenbakia</u> begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko.	☐	☐
Administrazio eskudunaren bitarteko elektronikoen bidez <u>Euskal Autonomia Erkidegoko Izaitezko Bikoteen Erregistroa</u> egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko.	☐	☐

Izenpetuta
ESKATZAILEAIzenpetuta
EZKONTIDEA/BIKOTEKIDEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak beraren titulartasuneko SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIENTZAÑO LAGUNTZAK izeneko fitxategian sartu direla. Fitxategiak laguntza horiek emateko espedienteak kudeatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari emango zaio horren berri, hark baitaizka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik. Datuak Babesteko Lege Organikoak arautzen duenez, sarbidea izateko, ezereztzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatzeko, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzara jo behar da (Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz)

2015eko uztailaren 3a, ostirala



EUSKO JAURLARITZA

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
Familia Politikarako eta Komunitate
Garapenerako Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
Dirección de Política Familiar
y Desarrollo Comunitario



SEME-ALABENGATIKO DIRU-LAGUNTZAK

AURKEZTEKO EPEA: DAGOKION URTE NATURAL OSOA

LETRA LARRIAK ERABILI ETA TXUKUN ETA ULERTZEKO MODUAN IDATZI

IRAKURRI ARRETAZ ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

0.- ADMINISTRAZIOAK BETE BEHAR DU:

Espediente:

URTEA

L.H.

ZENBAKIA

SARRERA-ERREGISTROA:

00458

1.- ESKATZAILEAREN DATUAK

Abizenek eta izenak ZEHAZKI bat etorri beharko dute zure NAN, AIZ edo pasaportean agertzen direnekin.

1. abizena:	2. abizena:
Izena:	NAN/AIZ/Pasaportea:
Jaiotza: Data:	Estatua:
Sexua: gizona ☐ emakumea ☐	
Egoera zibila: ezkongabea ☐ ezkondua ☐ izatezko bikotea ☐ banandua-dibortziatua ☐ alarguna ☐	
Haurrarekiko harremana: aita ☐ ama ☐ tutorea ☐ hartzailea ☐	
% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna ☐	Genero-indarkeriaren biktima ☐
GURASOEN ARTEKO HARREMANA:	1.- Elkarrekin bizi den bikotea gara ☐ 2.- Elkarrekin bizi ez den bikotea gara ☐ 3.- Egun ez gara bikotekideak ☐
Helbidea (jakinarazpena egiteko):	
Kalea:	zk.: Solairua: Hizkia:
Udalerrria: PK:	Herria:
Lurralde Historikoa:	Mugikorra: Telefonoa:
Helbide elektronikoa:	
Erroldatzearen antzintasuna (jarri X dagokion laukitxoan):	
Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) erroldatuta nago eta egon naiz etenik gabe azken 12 hilabete hauetan.	
☐ BAI	☐ EZ

NON AURKEZTU ETA NORA BIDALI: ZUZENEAN

Ramiro de Maeztu, 10 - 01008 VITORIA-GASTEIZ Gran Vía, 85 - 48011 BILBAO Andia 13, 20004 - DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Eskara telematikoa aurkezteko aukeraren berri izateko, begiratu hemen: www.euskadi.eus/familia

2015eko uztailaren 3a, ostirala

2.- ESKATZAILEA EZ DEN PERTSONAREN DATUAK (aita/ama, hartzailea, tutorea, edo, halakorik bada, egungo bikotekidea)

Abizenek eta izenak ZEHAZKI bat etorri beharko dute zure NAN, AIZ edo pasaportean agertzen direnekin.

1. abizena:		2. abizena:	
Izena:		NAN/AIZ/Pasaportea:	
Jaiotza: Data:			Estatua:
Sexua:	☐ gizona	☐ emakumea	
% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendetasuna		☐	
Helbidea:	☐ Araba ☐ Bizkaia ☐ Gipuzkoa ☐ Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo		

3.- FAMILIA-UNITATEAN ELKARREKIN BIZI DIREN SEME-ALABEN DATUAK:

ORDENA	JAIOTZE DATA	SEXUA		ABIZENAK ETA IZENA	% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendetasuna	Zaintza	Tutoretza
		G	E				
1.							
2.							
3.							
4.							
5.							
6.							
7.							
8.							
9.							
10.							

4.- JAKINARAZPENARI BURUZKO DATUAK:

Komunikatzeko hizkuntza:	☐ Euskara	☐ Gaztelania
Jakinarazpen-bidea:	☐ Ohiko posta	☐ Telematikoa
Jakinarazpen-bide hau aukeratzen baduzu, nahitaezkoa da NAN elektronikoa, ONA txartela, edo onartuta dagoen beste txartelen bat edukitzea. Zure espedientea erabakita dagoenean e-mail edo SMS bat jasoko duzu (aukeratu duzun jakinarazpen-oharra egiteko bidearen arabera), eta hau jakinaraziko zaizu: www.euskadi.eus/familia webgunera jo behar duzula, identifikazio-txartela txertatu eta "Nire gestioak" atalean sartu, eta hor ikusiko ahal izango duzu ebazpena osorik. Jakinarazpen-oharra egiteko bidea: ☐ SMSa ☐ E-maila		

2015eko uztailaren 3a, ostirala

ESKATZAILEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Izen-abizenak,
NAN/AIZ/pasaporte zk.:

Honako hau ADIERAZTEN DUT NEURE ERANTZUKIZUNPEAN:

Lehenengoa

- ☐ 1.- Ez dira aldatu hasierako eskabidean, zeinak mantentze-laguntza hau jasotzeko bide ematen baitu, egiaztatutako datuak.
- ☐ 2.- Mantentze-laguntza hau jasotzeko aurkeztutako hasierako eskabidean jasotako datuak eta baldintzak aldatu dira: familia-unitatearen osaera edo familiaren kideren baten berezitasunak, NANA, AIZa edo pasaporte, edo familia-kideren baten desgaitasun- edo menpekotasun-maila onartu edo berrikusi da; kontu-zenbakia aldatu da, eta abar.
-
-
-

Eta hori egiaztatzeko, dokumentazio hau aurkezten dut:

.....

.....

.....

- ☐ 3.- Mantentze-laguntza hau jasotzeko aurkeztutako hasierako eskabidean ez nuen eskatu laguntzarik jaiotzeagatik, adopzioagatik, adoptatu aurreko familia-harreragatik edo 18 urtetik beherako pertsonen tutoretzagatik. Hori dela eta, beren kargura seme-alabak dituzten familientzako laguntzak lortzeko egiaztatu behar den dokumentazio guztia aurkezten dut.

Bigarrena

Ez nago sartuta ☐ sartuta nago ☐ diru-laguntza bat itzultzeko edo hargatik zehapena ezartzeko prozedura batean, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta beraren erakunde autonomoek ematen dituzten laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den halako prozedura batean.

Hirugarrena

Ez nago zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta, eta ez nago, halaber, hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak esanbidez aipatuta, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoa) Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki.

Laugarrena

Irakurri ditut inprimaki hau betetzeko jarraibideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko eranskinak, eta egiazkoak dira eta ontzat ematen ditut eskabidean bilduta dauden datuak eta eskabideari erantsita doan dokumentazioa.

Bostgarrena

Laguntza hauen onuradun izateko indarreko legerian ezarritako baldintzak betetzen ditut eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa dut; horretaz gain, laguntza baliatzeko denboraldi osoan baldintzak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dut.

ESKATZEN DUT

Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzei buruzko indarreko araudian aurreikusten den laguntza eman diezadatela.

....., 20..... (e)ko..... ren(a)

ESKATZAILEAREN SINADURA

2015eko uztailaren 3a, ostirala

ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Bete datuak ondoren emango diren argibideak kontuan hartuta.

0 atala Administrazioak beteko du.

Zenbakizko datuak eskuinera doituko dira, hutsik geratzen diren laukitxoak ezkerreko aldekoak izango dira, baten bat hutsik geratzen bada.

NANaren laukitxoak betetzeko adibidea:

		7	8	2	5	6	9	1	Z
--	--	---	---	---	---	---	---	---	---

1.- ESKATZAILEAREN DATUAK: Aita, ama, hartzaila edo tutorea izan daiteke, betiere seme-alabekin bizi bada eta urtebete badarama Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta, edo, egun EAEn errolatuta badago eta azken hamar urtean bost urtez bertan etengabe bizi eta errolatuta egon dela egiaztatzen badu.

- NAN/AIZ/pasaportea: Espainiako herritartasuna baduzu, NANaren zenbakia idatzi; izan ezean, zure pasaportearen zenbakia edo atzeritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) jarri beharko duzu.
- Jaiotze-datari dagokionez, urtea jarri behar duzu lehenengo lau laukitxoetan, hilabetea hurrengo bietan eta, azkenik, eguna. Adibidea: 1980ko apirilaren 2an jaio bazara, 1980 04 02 jarri behar duzu.
- Erakunde eskumendunak onartutako % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna izanez gero, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu beharko da.
- Genero-indarkeriaren biktima izanez gero, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu beharko da.

2.- ESKATZAILEA EZ DEN PERTSONAREN DATUAK (aita/ama, hartzaila, tutorea, edo, halakorik bada, egungo bikotekidea): 1. ataleko arau eta irizpide berberak hartuko dira kontuan.

3.- FAMILIA-UNITATEAN ELKARREKIN BIZI DIREN SEME-ALABEN DATUAK: Ezinbestekoa da urte bakoitzeko urtarilaren 1ean familia-unitatean bilduta dauden seme edota alaba guztien jaiotze-datak eta izen-abizenak idaztea. Ezinbestekoa da seme-alabaren jaiotze-data, abizenak eta izena adieraztea, letra argia erabiliz

- Sexuari dagokion zutabea, laguntza sorrazazi duena semea bada, G letraren azpian dagoen laukitxoan **X** bat idatzi; neska bada, E letraren azpian dagoen laukitxoan **X** bat idatzi.
- Erakunde eskumendunak onartutako % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna, edo mendetasuna izanez gero, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatu beharko da.
- Epai judizial baten ondorioz zuk edo zure oraingo bikotekideak badaukazue aipatutako seme edo alabaren zaintza edo tutoretza, **X** batez adierazi Zaintza edo Tutoretza izenburuko zutabea, eta agiri bidez egiaztatu beharko da.

4.- JAKINARAZPENARI BURUZKO DATUAK: oharrak eta jakinarazpenak jasotzeko eskatzaileak hautatutako modua.

ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1- Dokumentazio hau aurkeztu behar da mantentze-laguntza hau jasotzeko aurkeztutako hasierako eskabidean egiaztatutako daturik aldatu ez bada:

a.- Eskatzailearen erroldatze-ziurtagiri eguneratua, etxean bizi diren lagun guztien zerrenda eta eskatzailea udalerrian erroldatu zen eguna barne. Ziurtagiri hori, onartua izateko, gehienez ere laguntza-eskabidea aurkeztu baino hilabete lehenago egina izango da.

Eskabidea aurkeztu aurreko urtean eskatzailea ez bada bizi izan edo ez bada jarraitutasunez erroldatuta egon Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan, egungo erroldatze-ziurtagiriaren gain (ziurtagiri horretan eskatzailearekin batera bizi diren lagun guztiak bilduko dira), azken hamar urte hauetan bost urtez jarraian EAEko udalerriren batean erroldatuta egon dela egiaztatzen duen erroldatze-ziurtagiria aurkeztu beharko du.

b.- PFEZ errenta-aitorpenaren kopia, eskabidea aurkeztu den dataren aurreko bi urteei buruzkoa edo, horrelakorik ez badago, PFEZari egozteko moduko diru-sarreraren ziurtagiria, dagokion administrazioak emandakoa, kasu hauetakoren batean badago solilik:

- Aitorpen hori EAEtik kanpo aurkeztu bazuen edo aurkeztu beharko bazukeen.
- Azken hiru urteetan zure identifikazio-dokumentuan aldaketaren bat egin baduzu (AIza izatetik NANA izatera pasatu bazara, izenaren grafia aldatu baduzu, abizenen hurrenkera aldatu baduzu, eta abar)
- Pasaportearekin identifikatzen bazara
- Ez baduzu baimenik ematen euskal autonomia-erkidegoko foru-ogasunei datu ekonomikoak eskatzeko.

2- Dokumentazio hau aurkeztu behar da mantentze-laguntza hau jasotzeko aurkeztutako hasierako eskabidean egiaztatutako datuak aldatu badira:

Aurreko paragrafoko a) eta b) idatzi-zatiak. Eta ondorengo idatzi-zatietako datuak, hasierako eskabideak izan dituen aldaketak egiaztatzen dituztenak.

c.- Eskatzailearen eta gaur eguneko ezkontide edo bikotekidearen NAN, AIZ edo pasaportearen kopia, salbu eta órgano kudeatzaileari baimena eman bazaio NAN edo AIza begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko. Europar Batasuneko beste estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte hartu duten estatuetako bateko nazionalitatea duten pertsonen pasaportea edo beren herrialdeko nortasun-agiri baliokidea aurkeztuko dute, titularraren nazionalitatea adierazten den heinean, eta gainerako herrialdeetako nazionalitatea duten pertsonen, berriz, Atzerriarra Identifikatzeko Zenbakia (AIZ) edo pasaportea aurkeztu beharko dute edo, hala dagokionean, bizileku iraunkorrerako baimena.

d.- Senar-emazteen familia-liburuaren kopia edo, izatezko bikoteen kasuan, erregistratuta dauden Izatezko Bikoteen Erregistroaren ziurtagiria edo hura egiaztatzen duen antzeko dokumentua, salbu organo kudeatzaileari baimena eman bazaio egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko inskripzioa izatezko bikote gisa Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan.

e.- Laguntza jaso dezakeen seme edo alaba barne hartzen dituen familia-liburuaren kopia. Familia-unitatea osatzen duten seme-alaba guztiak familia-liburuan jasota ez badaude, haien jaiotza egiaztatzen duen jaiotza-agiria edo antzeko agiria aurkeztu beharko da, agintaritzak eskudunak egina, familia-liburuan agertzen ez diren seme edo alaba bakoitzeko.

f.- Laguntza kobratu nahi den aurrezki-libretaren edo banku-kontuaren titulartasun-datuen kopia. Nahitaez, eskatzaileak aurrezki-libretaren edo banku-kontuaren titular izan beharko du. Eskabide hau aurkeztu ondoren, laguntzak kobratzeko banku-kontuaren zenbakia aldatu duzula jakinarazten baduzu, laguntzak kudeatzen dituen organoak egingo du aldaketa eta, hortaz, aldaketa hori ez da berehalakoa izango.

g.- Adopzioaren, harreraren edo tutoretzaren kasuan, hura gauzatzeko ebazpen judizialaren edo antzeko dokumentuaren kopia, eta, hala badagokio, horren jakinarazpen-data egiaztatzen duen ziurtagiria, adopzioa, adopzioaren aurreko familia-harrera edo tutoretza gauzatzeko eskumena duen agintaritzak emana, betiere.

h.- Eskatzailearen ezkontza deuseztatu bada, edo epai judizialen bitartez eskatzailea banandu edo dibortziatu bada, laguntza eragin duten seme-alaben zaintza eta babespea esleitzen duen ebazpen judizialaren kopia. Orobat, ebazpen judizialaren arabera seme-alaba horien zaintza eta babespea konpartitua bada, laguntzaren eskatzailea erabakitzeak lortutako akordio sinatua aurkeztuko da.

i.- Familia-unitateko kideren bati % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna —edo mendetasuna— onartu bazaio, órgano eskudunak indarreko desgaitasun-maila aitortzeko emandako ziurtagiriaren kopia.

j.- Emakumeen aurkako indarkeria-egoera egiaztatzeko, bide hauetakoren bat erabiliko da:

- Indarkeriaren biktimak babesteko agindua indarrean egotea eskabidea egiten den egunean.
- Genero-indarkeriatzat hartzen diren ekintzengatiko zigor-epaia, non biktimaren aldeko babat neurriak hartzea erabaki baita; babes-neurriak indarrean egon beharko dute laguntza-eskaria egiten den egunean.
- Baldin eta babes-agindurik edo zigortzeko epairik ez badago, Fiskaltzaren txostenak balioko du egoera hori egiaztatzeko, babes-agindua ematen den arte; txosten horretan adieraziko da zantzuak daudela eskatzailea genero-indarkeriaren biktimak izateko.

3- Dokumentazio hau aurkeztu behar da mantentze-laguntza hau jasotzeko aurkeztutako hasierako laguntza-eskabidean ez bazen laguntzarik eskatu jaiotzeagatik, adopzioagatik, adoptatu aurreko familia-harreragatik edo 18 urtetik beherako pertsona baten tutoretzagatik:

Aurreko idatzi-zati guztiak, a)-tik j)-ra arteko guztiak

Oharra: atzerrian emandako dokumentazioa

Ematen diren atzerriko dokumentu guztiak euskarara edo gaztelaniara itzulita egon beharko dute, interprete ofizial batek itzulita ere. Gainera, atzerriko dokumentu publikoak dagokionaren arabera legeztatu behar dira, Hagako Oharraren edo Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez.

2015eko uztailaren 3a, ostirala

EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO FORU-OGASUNEI DATU EKONOMIKOAK ESKATZEKO BAIMENA

DATU EKONOMIKOAK ESKABIDE HAU AURKEZTU AURREKO BI URTEEI DAGOKIE

ATAL HAU DERRIGOR BETE BEHARKO DA ESKABIDE GUZTIETAN, kasu hauetan izan ezik:

- 1) Eskabidea aurkeztu aurreko bi urteei dagokien zergaldian PFEZaren aitortpena EAetik kanpo egin bazenuen edo egitea tokatzen bazitzaizun
- 2) Azken hiru urteetan zure identifikazio-dokumentuan aldaketaren bat egin baduzu (AIza izatetik NANA izatera pasatu bazara, izenaren grafia aldatu baduzu, abizenaren hurrekera aldatu baduzu, eta abar)
- 3) Pasaportearekin identifikatzen bazara, edo zure herrialdeko nortasun-agiri baliokidearekin Europar Batasuneko beste estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte hartu duten estatuetakoko bateko nazionalitatea duen pertsona bazara.

Kasu horietan, eskatzaileak derrigor aurkeztu beharko du PFEZ errenta-aitortpenaren fotokopia, eskabidea aurkezten den dataren aurreko bi urteei buruzkoa edo, horren ezean, PFEZean kontuan hartutako diru-sarreraren ziurtagiria, dagokion administrazioak emana.

ESKATZAILEAREN DATUAK:

Abizenak: 1. 2.
Izena: NAN/AIZ:

EZKONTIDEAREN/BIKOTEKIDEAREN DATUAK:

Abizenak: 1. 2.
Izena: NAN/AIZ:

A.- BAIMENA EMATEN DUZU FORU-OGASUNARI DATUAK ESKATZEKO?	ESKATZAILEA	EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA
Ez dut baimenik ematen, eta gutxienerako laguntzari heltzen diot	☐	☐
Ez dut baimenik ematen, eta eskabidea aurkeztu aurreko bi urteei dagokien zergaldian PFEZaren aitortpena aurkezten dut.	☐	☐
Ematen dut baimena datuak eskatzeko	☐	☐
B.- AURKEZTU AL ZENUEN ERRENTA-AITORPENEA?		
Ez nuen errenta-aitortpena aurkeztu	☐	☐
Aurkeztu nuen errenta-aitortpena	☐	☐
C.- ZER MOTATAKO ERRENTA-AITORPENEA AURKEZTU ZENUEN?		
Banakako aitortpena	☐	☐
Baterako aitortpena, egungo ezkontide edo bikotekidearekin	☐	☐
Baterako aitortpena, aurreko ezkontide edo bikotekidearekin	☐	☐
Banakako eta baterako aitortpena	☐	☐
D.- ZER LURRALDE HISTORIKOTAN AURKEZTU ZENUEN EDO AURKEZTU BEHAR ZENUKEEN?		
Araban	☐	☐
Bizkaian	☐	☐
Gipuzkoan	☐	☐

....., 20 (e)ko ren (a)

IZPTA: ESKATZAILEA

IZPTA: EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA

DIRU-SARRERARIK EGIAZTATZEN EZ BADA, GUTXIENERAKO LAGUNTZA jasoko da

2015eko uztailaren 3a, ostirala

ESKATZAILEAREN ETA HAREN EZKONTIDE EDO BIKOTEKIDEAREN BAIMENA

ESKATZAILEA

Izena eta bi abizenak:

NAN/AIZ:

EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA

Izena eta bi abizenak:

NAN/AIZ:

BAIMENA EMATEN DIOT LAGUNTZA KUDEATZEN DUEN ORGANOARI

	ESKATZAILEA	EZKONTIDEA EDO BIKOTEKIDEA
Administrazio eskudunaren bitarteko elektronikoen bidez <u>nire nortasun-agiri nazionala edo atzerriarraren identifikazio-zenbakia</u> begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko.	☐	☐
Administrazio eskudunaren bitarteko elektronikoen bidez <u>Euskal Autonomia Erkidegoko Izaitezko Bikoteen Erregistroa</u> egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko.	☐	☐

Izenpetuta
ESKATZAILEAIzenpetuta
EZKONTIDEA/BIKOTEKIDEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak beraren titulartasuneko SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIENTZAÑO LAGUNTZAK izeneko fitxategian sartu direla. Fitxategiak laguntza horiek emateko espedienteak kudeatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari emango zaio horren berri, hark baitaizka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik. Datuak Babesteko Lege Organikoak arautzen duenez, sarbidea izateko, ezereztzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatzeko, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzara jo behar da (Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz)